

## Buenetxeak seigarren aldiz areto-futboleko finala irabazi du

■ Buenetxeak Izkiña Tabernari 2-0 irabazi zion XXV. finalean

Ostadar Kirol Fundazioak antolatu duen XXV. Areto-Futboleko finalean, Buenetxeak 2-0 irabazi zion Izkiña tabernari. Buenetxeak dagoeneko bederatzia final jokatu ditu eta larunbatean seigarren txapela jantzi zuen. Kiroldegiko harmailetan zeuden jarraitzaileek partidua borrokatua eta berdindua ikusi ahal izan zuten. Beste urte batez, finaleko norgehiagokan joko ona eta kiroltasuna nabarmendu zen. Buenetxeako golak Javier Mayan eta Agus Egañak sartu zituzten.

Arratsaldeko 16:00etan Kontsolazioko finala Mostatxo eta Frutas Ruiz taldeek jokatu zuten. Partiduko lehen zatia oso berdindua izan zen arren, 2. goan Frutas Ruiz taldea nekatua jokatu zuen eta Mostatxok aukera hau aprobetxatu zuen markagailuan aurreratze-ko. Azkenean, Mostatxok 5-2 irabazi zuen.

Ondoren, Jordi Sonido-Bar

Epel ligilako finala ikusi ahal izan zuten ikusleek. Jordikoek hasieratik nagusitu ziren, izan ere 5-1 emaitzarekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian, Epeleko jokalaria gogor aritu ziren markagailuari buelta emateko asmoz, baina ezin izan zuten eta Jordi Sonidok 6-3 irabazi zuen.

### Sarituak

Finaleko atsedendian txapelketako antolakuntzak "Palomo", Buenetxeako entrenatzailea, omendu zuen urteetan txapelketan egindako lanarengatik. Finala ohikoa denez, Ostadarrek Auzolan eta Kirolari Onena sariak banatu zituen: lehen, Buruntz-Azpi elkartearentzat eta bigarrena Maialen Chourraut piraguistarentzat izan zen. Ostadarreko ordezkariak pozik agertu dira eta eskerrak eman nahi dizkie Erketzeko dantzari, Idoia eta Andoni txistulariei.



Pilar Seminariok jelskortasunari buruzko hitzaldia emango du asteazkenean /2

### KIROLA ■ 6

Intza Elkarteko San Pedrotarako XVI. Esku-pilota txapelketan izena emateko epea zabalik



Udako Txokoetan eta Kanpaldietan matrikulatzeko epea maiatzaren bukaera arte zabalik /4-5



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



**HEZIKETA ZIKLOAK**  
Diseinu Grafikoa  
Kirol Ekintzak

Ate Irekiak  
Maiatzak 22  
18:00-19:00  
Barandiaran Lizetean

izan nahi duzuna!



www.barandiaranlizetean.com 943213355 barandi02@ikastola.net

**BELARTZA JATETXEA TABERNA**

Asteburutako menua 11€

Eguneko menua  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak

Larunbata gaua  
eta igandea  
ibiltai!

Belartza poligonoa  
Gurutzezi kalea 15, 4A Pabillioia  
20018 Donostia • Tel.: 943 376082

Zazpi urtetik beherako haurrak dituzten gurasoentzat bereziki interesgarria den hitzaldia burutuko da datorren asteazkenean, arratsaldeko 6etan, kultur Etxean. Jeloskortasunari buruzko solasaldia antolatu du KIUB, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak, eta Pilar Seminario, irakasle, psikologoa eta haurren osasun prebentzioan aditua izango da hizlari. Ondo jakatuz gero, arlo honetan anai-arreben artean sor daitezkeen arazoak konponbidea badute bere ustez. Gurasoek horrelako kasuetan nola jokatu behar duten azalduko du haurrengan sortzen diren azaroei aurre egiten hainbat urtetan diharduen psikologoak.

#### TXINTXARRI

Pilar Seminario Sortuz taldeko eta APIR erakundeko kidea da. Reichiar psikoterapia eta haurren osasun-prebentzioa jorratzen duen talde honek urte asko daramatza Lasarteko Kultur Etxean haurtzarolari buruzko hitzaldiak antolatzen. Hitzaldien helburua irakasle eta gurasoen formakuntza hobetzea da, eta beraz haurren arazo edo zailtasunak aurreikusi eta beraiei aurre egiteko pautak batzuk ematea. Pilar Seminario berak azaldu digu "0 eta 7 urte bitarteko haurren guraso eta zaintzaileei zuzendutako hitzaldi hauetan, gehienetan tratatzen ditugun gaiak, gurasoek aukeratutakoak izaten dira. Horixe gertatzen da hurrengo asteazkenean emango den hitzaldiaren gaia: jeloskortasuna, gurasoei asko interesatzen zaien gaia, jorratuko da".

#### Ohiko arazoa

Irakasle eta psikologoak azaldu digunez sarri gertatzen dira horrelako arazoak familia batean haur berri bat jaio-tzean: "Handienak, ordurako ondo lo egiten zuenak, txiza egin behar duen tokian egiten zuenak, denetik jaten zuenak eta oso umore ona zuenak, aldaketa bat izaten du eta ematen du txikiagoa egin

**Pilar Seminario / Psikologo eta irakaslea. Haurren osasunean aditua.**

## "Gurasoak prestatu daitezke haur berria jaio aurretik, anai-arrebek zelorik izan ez dezaten"

Anai-arreben arteko zeloak izango dira datorren asteazkenean, kultur Etxean, Pilar Seminario psikologoak jorratuko duen gaia. Edozeini, baina batez ere, gurasoei zuzendutako hitzaldian, gai hau sakonki aztertuko du eta besteak beste, "zer dira zeloak? Zergatik sortzen dira? Egin dezakegu zerbait ez gertatzeko? Nola jokatu zeloak dituen haurrarekin?" galderei erantzuten saiatuko da Pilar Seminario, irakasle eta psikologoak berak azaldu digunez.



Zeloak dituzten haurrekin nola jokatu azalduko du Pilar Seminariok asteazkenean 18.00etan Kultur Etxean.

keen eta nola tratatu behar diren zeloak dituzten haurrak

Pilar Seminarioren iritziz, "zeloak haurrak daukan sentimendu naturala da". Berria jaio aurretik zuen egoera eta jaso duen maitasuna "galtzeko arriskuan ikusten ditu, eta beldurra sentitzen du. Haurrak segurtasuna behar du bizitzeko, eta segurtasun hau bere gurasoek edo zaintzaileek ematen diote; beste txiki bat iristen denean, famili sistema osoa aldatzen da, segurtasuna galtzen da eta haurra gaizki sentitzen da. Orduan nabaritzen ditugu aldaketak haurrengan, eta aldaketa hauek fisikoak edota emozionalak izan daitezke".

#### Irtenbideak

Dena den, Pilar Seminariok arazo hauen aurrean, zein jokabide izan behar den ere azalduko du. Bere ustez, gurasoak prestatu daitezke haurra jaio aurretik. "Giroa prestatu dezakegu, ez jaioberriarentzat bakarrik, handiarentzat ere bai, beraren segurtasuna bermatzeko. Hitzaldian ikusiko dugu nola garantizatu segurtasun hau eta zer egin daiteken adinaren arabera".

Beraz hitzaldi interesgarria gurasoentzat, datorren asteazkenean arratsaldeko 6etatik aurrera Kultur Etxean gaztele-raz, anaien arteko zeloak zergatik gertatzen diren ikusi, zeloak dituzten haurren joerak hobeto ulertu eta prebentzioarako jokabide batzuk ezagutzeko. •

*"Zeloak haurrak daukan sentimendu naturala da. Berria jaio aurretik jasotzen zuen maitasuna galtzeko arriskuan ikusten du, eta beldurra sentitzen du"*

dela: orain denbora guztian amarekin egon nahi du, lehen ez zeuzkan beldurrak sortzen zaizkio, txiza gainean egiten du eta nahiko oldarkor egoten

da. Esaten dugu orduan zeloak dituela". Baina posible da haurren ezinegon horri modu egokian aurre egitea eta hain justu horixe aztertuko dute

sakonki asteazkeneko solasaldian: batetik, zeloak, zer diren eta zergatik sortzen diren, eta bestetik, gerta ez daitezen zerbait egin daite-

# UDAKO TXOKOAK



2008



# GAZTE KANPALDIAK 2008



Ttakun Kultur Elkartea • Geltoki kalea 4 • 943 371448 • aisia@ttakun.com • www.ttakun.com



# San Markosek garapen iraunkorraren alde, atez-ateko zabor bilketa sustatuko du

■ Mankomunitateak hondakinak Bizkaira eramatea ez dela konponbidea uste du

TXINTXARRI

**Gipuzkoako eta Bizkaiko diputazioek Gipuzkoako zaborra Bizkaira eramatea adostu dute. Honen aurrean San Markos Mankomunitateko ordezkariak erabaki hau "errauste planta sustatzen duen ereduak denbora irabaz dezan, adabaki bat besterik ez" dela kritikatu dute.**

San Markos Mankomunitateko Komunikazio sailetik helarazi duten dokumentuan Gipuzkoa eta Bizkaiko diputazioek hartutako erabakia kritikatzeko dute eta "hondakinen tratamenduak trasladorik ez duela behar, konponbideak baizik", diote. Honen harira, "diputazioen arteko akordioak San Markoseko zaborteziaren itxiera ekarri dezakeen arren, adabaki bat da, errauste planta sustatzen duen ereduak denbora irabaz dezan".

Ricardo Ortegak ordezkatzeko duen mankomunitateak zaborren arazoari irtenbidea emateko murriztu, berrerrabil eta birziklatu, hiru ardatz hauetan gako dagoela uste du: "erronka ez da erraustea, gaikako bilketa egitea baizik. Denak nahastuta biltzeak, agerian esaten ez bada ere, ondoren Zubietan errauste



planta bat eraikitzea da helburua".

## Mankomunitatearen kritika

Mankomunitateko ordezkariak Markel Olano ahaldu nagusiaren jarreraren aurrean guztiz kritiko azaldu dira: "Markel Olano jaunaren helburu bakarra errauste planta eraikitzea da. Baina, mozturro sasi ekolo-

gikoa jantzi eta konpostajea eta birziklatzea ahalik eta gehien egin behar dela dio. Ez da sinesgarria. Olano jaunak 2016rako, 8 urte barrurako, nahastuta biltzen den zaborra %30 murriztuko duela aurreituz kritiko azaldu dira: "Markel Olano jaunaren helburu bakarra errauste planta eraikitzea da. Baina, mozturro sasi ekolo-

biltzen den zaborra %70 murriztu daitekeela".

## Atez ate biltzeko erronka

San Markoseko Mankomunitateak "ingurugiroari errespetua dion konponbidea bultzatuko du, gure osasuna arriskuan jarriko ez duena, eta ekonomikoki bideragarri izango dena", dio komunika-

tuak. Honen harira, "garapen iraunkorraren alde, indar guztiak jarriko ditu gaikako bilketa sustatzeko, Olano jaunak dioen bezala, ahalik eta birziklatzeari etekin handiena ateratzeko. Horregatik, San Markoseko Mankomunitateak hondakinen kudeaketa errotik aldatuko duen atez ateko bilketa sustatuko du".

## Larrain dantza ikasteko saioak

Badira pare bat urte festen inguruan euskal dantzei errepasotxo bat eman eta kalean dantzatzeko plazera martxan jarri zela. Aspaldi ikasi, eta urteetan egin ez, edo inoiz ikasi ez eta bazterretik begira inbidiatan egon izan ohi gara. Horri erremedioa jartzeko asmoz, herriko festak aitzaki

hartuta, saiakera egitera doaz. Iaz, muxikoak berri zitu zuten eta aurtun Xiberuko zenbait polka, eta Larrain dantzari ekitokotan gara. Edonork hartu dezake parte ekimen honetan.

Entsaioak Erketzen lokaletan egingo dira. Ekainak 6, 13, 20 eta 27an. Izen emateak Takunen (943 371448).•



Orain bi urteko herriko jaietan muxikoen dantza erakustaldia.

## Zubietako gainera mendi-martxa egin zuten larunbatean

Eguraldia lagun Okendo plazaetik abiatu ziren goizeko 10:45ean Zubietara eta han Zubietara eta Usurbilgo jendearekin batera Zubietako gainetara abiatu ziren. Lasarte-Oria Bizirik, Zubietara Lantzen eta Usurbil Bizirik taldeek Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Plataforma Koordinadorearen babesarekin antolatutako ekitaldiak hirurogei bat lagun bildu zituen.

Ibilbidean geldialdiak egin zituzten erraustegiaren erakuntzak inguruan eragingo duen txikizkoaren berri emateko. Antolatzaileek garbi utzi zuten oraindik ez dagoela ezer erabakita eta erronka handiena herri mugimenduak duela. Beraz, hurrengo deialdietara herritarrak joan daitezkeen eskatu zuten. •







SARIA

## Donostiako Nazioarteko Krosa saritu dute

Gipuzkoako Atlestimo Federakuntzak (G.A.F.) helarazi duenez, Kirol Kontseilu Gorenak Donostiako Nazioarteko Krosari Kirol Merituaren zilarrezko plaka saria ematea erabaki du. Atletismoko proba honek, hurrengo astean, maiatzaren 27an, kontseiluko lehendakariaren, Jaime Lissavetzky Díez jaunaren, eskutik jasoko du saria Madrilen egingo duten sari emate ekitaldian.

Nazioarteko Krosaren 53. edizioa egin dute aurtengo urtarirlean, baina GATletismoko Federazioak 1955. urtea geroztik, Donostiako Nazioarteko Krosa urtarirleko azken igandean antolatu du.

HITZALDIA

## Eskola Curriculumamintzagai izango da Landaberrin

Azken boladan oso entzuna eta eztabaidatua gertatzen den gaia landuko dute Landaberri Ikastolan: Eskolako Curriculumamintzagai izango da Landaberrin.

Landaberri Ikastolako Guraso Elkarteak helarazi dutenez, Eskola Curriculumamintzagai izango da Landaberrin. Hitzaldia irekia izango da eta hitz-ordua maiatzaren 20ean, asteartean, Landaberri BHiko zentroan, REM eraikin ohian, arratsaldeko 19:00etan izango da.

Galdera hauen inguruan argibide gehiago edukitzeko Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak kideak gonbidatu dituzte. Hitzaldia irekia izango da eta hitz-ordua maiatzaren 20ean, asteartean, Landaberri BHiko zentroan, REM eraikin ohian, arratsaldeko 19:00etan izango da.

# Esku-pilota txapelketa abian

Intza Kirol Elkarteak benjamin, alebin A, alebin B eta Infantil mailako haurrentzat San Pedrotarako XVI. Esku-Pilota Txapelketa antolatu du eta izena emateko epea irekita dago. Beraz, txapelketan parte hartu nahi duenak asteartean edo ostegunean Michelingo kiroldegian 19:00etatik 20:30ak bitartean eman beharko du izena. Bertan J.M.Arteagarengatik galdetu. Izena emateko epea maiatzaren 27an amaitzen da.

Partidak larunbat eta igande goizetan jokatu dira Okendo plazan eta antolatuzaileek partidak txandarekin jokatzeko gomendatzen dute. Finala eta finalerdiak, berriz, zuiz jokatu dira.

Txapelketako lehenengo partida maiatzaren 31ean hasiko da eta finalistak ekainaren 30ean, San Pedro jailetako haurren egunean, finaleko norgehiagokan ikusi ahal izango ditugu.



XV. Esku-pilota txapelketako partaideak Michelingo frontoian elkartu ziren taldeko argazkia egiteko.



Ahozktasuna eta Bertsolaritzako ikasleak ikasturte bukaera eskaini zuten jaialdian, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

## Ahozktasuna eta bertsolaritza gaur kulturetxean

Lasarte-Oriako Landaberri eta Sasoeta-Zumaburuko ikasleak kulturetxean bertsotan ikusteko aukera izango duzue astelehenean, arratsaldeko 17:30ean eta 18:30ean, eskainiko dituzten bi saioetan.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak duela zortzi urte hasi zen Bertsolaritza eta Ahozktasuna izeneko proiektuarekin ikastetxe desberdinetan lanean, eta urte urte gero eta ikastetxe gehiagotara hedatzen joan da. Ekimen honen helburuetako bat kurso bukaera bertsolaritzaren bueltan lanean jardun direnei jendaurrean aritzeko aukera ematea da, proiektu publikoan trebatu daitezen, horretarako beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

SAHARAR KANPAMENDUETAKO ARGAZKIAK ikusgai Sahararen lagunak elkartearen eskutik. Jalgin, egun osoan.



### Erakusketa

XXII. PINTURA TAILERRAREN erakusketa Bizilagunen elkarteak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



## Hitzaldia kulturetxean

ANSIETATEA ETA DEPRESIOAREN INGURUKO hitzaldia antolatu du KIUBek. Hizlaria Xabier Arrazola psikologoa izango da.

OSTEGUNEAN KULTURETXEAN 19:00ETAN  
GAZTELANIAZ

## Asteazkena, 21

### Hitzaldia

JELOSKORTASUNARI BURUZKO HITZALDIA KIUBek antolatuta. Hizlaria: Pilar Seminarioren. Otik 7urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

## Osteguna, 22

### Zinea

BROKEN FLOWERS filma ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan. GAZTELANIAZ.

## Ostirala 23

### Antzerkia

“OGIYIK KARRI ETZUN SEMIA” antzezlan Txirene antzerki taldearen eskutik Jalgi kafe antzokian 22:30ean. Kultur Errotaren zirkuituaren barruan. EUSKARAZ.



## Igandea, 25

### Zinea

MI MONSTRUO Y YO haurrentzako filma. Sarrera 3 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ

## Osteguna, 29

### Hitzaldia

NOLA AZALDU BIZITZAK DUEN ZENTZUA izenburupean eskainiko du hitzaldia Pilar Arazolak. Kulturetxean, 17:00etan GAZTELANIAZ

### Antzerkia

BOB? NOR DA BOB? (TABERNAKO FILOSOFIA) Jon Urrazaren, antzezlan ikusgai. Kultur Errotaren zirkuituaren barne. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ



## Larunbata, 31

### Kontzertua

DJ BUDIN (BREAKJAZZFUNK), Ttakuntronik zirkuituaren barne. Jalgin, 23:00etan.

## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiako programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Areto-futboleko finaletan tabernak ordu bete bat gehiago irekita

Ostadar Kirol Fundazioak herriko tabernariei eta gainontzeko herritarrei jakinarazi nahi die areto-futboleko finaletan egunean, maiatzaren 17an, eta Udaren baimenarekin, tabernekin ordu bete beranduago itxi ditzaketela.

### Zabaletako jaiak

Zabaleta Auzoko jaiak antolatzeko bilera egingo da ostiralero Antonio plazan iluntzeko 19:30ean. Aurten gainera, aldaketa txiki bat dago eta jaiak aurreratu egingo dira pixka bat, maiatzaren 27an hasiko dira eta ekainaren 1ean bukatu.

### XXXI Mus Txapelketako finaleko afaria

Lasartearra elkarteak ekainaren 7an izango den XXXI. Mus Txapelketako finaleko afarirako izena emateko epea zabalik dagoela jakinarazi

nahi die bazkide eta lagun guztiei. Interesa dutenek, elkartearen egoitzatik pasa behar dute eta izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da.

### Glotodidaktika ikastaroa

Euskara irakaslea izan nahi dutenentzat, Antiguako AEK euskaltegiaren glotodidaktika ikastaroa antolatu dute. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza emango da ikastaro horretan ekainaren 30etik uztailaren 24ra bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943327172 telefonora (Gipuzkoako AEK). Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan politan izateko aukera izango duzu.

### Alebinentzako deialdia

“Kirola zure herrian egin” lelopean, Ostadar K.F.k

hurrengo denboraldian alebinen taldean jokatu nahi duten haurrentzat aurre inskripzioa ireki duela jakinarazi nahi du. 1997an jaioakoe eta Lasarte-Orian bizi direnak, herrian ikasi edo ez, soilik eman dezakete izena. Izen ematea maiatzaren 30a bitartean egin daiteke, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00ak bitartean Ostadarrek Geltoki kalea 2an duen bulegoan. Jokalari kopurua mugatua denez, Ostadarrek ekainean entrenamenduetarako deialdia egingo du.

### Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren oharra

Gizarte Zerbitzuen Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die zabalik dagoela Gizarte Zerbitzuen Departamentu honek eman ohi dituen dirulaguntzak eskuratzeko eska-

riak aurkezteko epea. Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (9:00etatik 13:00etara bitartean), eskutako agiriarekin batera (Memoria, Gastuen Justifikazioa eta Jardueren Proposamena). Maiatzaren 5etik 30era aurkeztu daitezke eskariak.

### Usurbilgo Lanbide Eskola

Usurbilgo Lanbide Eskolak ate irekien jardunaldiak ospatuko ditu hilabete honetan. Maiatzaren 17 eta 24an izango dira jardunaldiak eta goizeko 11:00etatik aurrera bere eskaintzaren berri emango dute.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe



### Amaraun jaialdia

Jaialdia larunbat honetan izango da, hilaren 24an, Michelinen. Goizetik hasi, 10:30ean eta gaueko 20:00ak arte ekintza ezberdinak egingo dira.

Amaraun klubeko bazkideen bazkari ofiziala ere egingo da eta bertara joan nahi duenak pasa dadila Ttakunetik izena ematera. Bazkaria doan da.

# Garraxi ixilak

■ 36ko gerrari buruzko lana estreinatuko du ostegunean Landaberri Antzerki Eskolak  
■ "Interesgarriena ez da iragana gogoratzea, berriro gerta ez dadin ikastea baizik"

**Landaberri Antzerki Eskolak** datorren ostegunean estreinatuko du jende aurrean bere lan berria, arratsaldeko 8etan Andoingo Bastero kultur etxean. 36ko gerrari buruzko lan sakona prestatu dute

Lasarte-Oriako antzerkilariak, Andoingo Oroituz taldeko Xabier Lasaren "Ahozko historia: oroimean lokartutako ahotsa" liburu mardul eta interesgarrian jasotako hainbat pasarte, testimonio eta

bizipenetan oinarrituta. Andoindarrek bizitakoak eraman dituzte oholtzara eta Andoainen eskainiko da "Garraxi Ixilak" lehen aldiz. Gero Ekainaren 6an antzeztuko dute Lasarte-Orian.

Jon ALTUNA

"Garraxi Ixilak" antzerki lana sortu eta prestatu du aurtur Landaberri Antzerki Eskolak, 36ko gerrari buruzkoa. Bi talde ditu Eskolak: astelehen arratsaldetan hamar bat lagun biltzen dira Mertxe Rodriguezekin eta astearte goizetan beste hamar Joserra Fachadorekin. Hauek, Kontxu Yarza, Junkal Perez, Donetz Iradi, Ane Huizi, Lorea Yeregi, Anabel Eleno, Jesus Mari Presa, Estitxu Garmendia, Mirentxu Egizabal eta Mailu Arrutik 36ko gerrako hainbat gertaera bildu dituzte ordu bete inguru irauten duen lanean: Trintxera, exodoa, irainak, fusilamentuak, ile mozketak, kartzela, gosea... Andoingo Oroituz taldearen laguntza handia izan dute herriko antzezleek eta hain juxtu osteguneko emeraldia Oroituz-ek antolatatu du, lurpean gordetako istorioa azalera nahi duen taldeak.

Landaberri Eskolako kideek adierazi dute pertsonalki oso aberatsa izan dela egin duten lana. Euren helburua ez da ikuslea hunkitzea izan. Donetz Iradi esan digunez, "guk ez ditugu horrelako gertaerak bizi izan; gure gurasoek eta ingurukoek kontatu dizkigute baina asko ere ez. Beraz bide bat da hau errealitate horretara hurbiltzeko eta maila batean iritzia emateko ere bai, horrek lagun-duko digulakoan, berriro errepika ez dadin".

## Sei urte lanean

Duela sei urte sortu zenetik Landaberri Eskolak urtero prestatu izan du lanean bat Lasarte-Orian eskaintzeko. Joserra Fachado zuzendariak azaldu digu nola abiatu den aurtengo egitasmoa. "Saharari buruzko zerbait egitea pentsatzen ari ginen iazko aste santutik, baina ez genuen ezer maimtsurik aurkitzen. Udan Markak Bernardo Atxagak gerrari buruz idatzitakoak irakurri eta konturatu nintzen hor bazegoela materiala. Batera taldekide batzuk Xabier Lasaren liburu irakurtzen ari ziren. Uda ondoren elkartu ginenean, Markak pasa nien irakurtzeko eta zera komentatu zuten taldekoei, hori egitekotan bazela antzeko zerbait Andoainen, gertuago. Hori Junkal eta Mailuk egokitu dute". Zuzendariak bien lana



Ostegunean, arratsaldeko 8etan Andoingo Bastero Kultur Etxean Garraxi Ixilak-en aurre-estreinaldia. Irudian, antzezleak eta Joserra Fachado.

goraipatu du: "Eurek egin dute lan gehiena. Ni soilik astean bi orduz etorri naiz".

Mailu Arruti eta Junkal Perez arduratu dira beraz testua antzerkirako egokitzeaz. "Xabier Lasarekin harremanetan jarri eta oso erraza izan da, liburuan dagoelako dena, jende askorekin bildu da bera. Atxagaren Markak oso inpersonala zela iruditu zitzaigun, eta, aldiz, Andoainen, gugandik oso gertu, bazeudela istorio politik. Horrela probak egiten hasi, saio horietan sortzen ziren gauzak jaso, eta hortik abiatuta egin dugu testua". Taldeko hamar kideak, urritik, astean bi orduz elkartu dira lana prestatzeko.

Fachadok argitzen du zailena antzezlanaren eskema osatzen izan dela. "Badaude fusilatuen eskutitz oso interesgarriak, ilea moztu zien emakumeen pasadizoak, edo goseak zeudela alkatearengana joaten zirenen eskaerak... pixkanaka, inprobisatzearen bidez, sortu zen eskema. Ez da erraza liburutik antzerkiko beste hizkuntza horretara pasatzea. Antzerkiak

beste era bateko dimentsioa ematen dio eta".

## Ondo pasaz antzerkia ikasi

Zuzendaria gustura da antzerkia zaletasun gisa hartzen duen taldearekin. Bere ustez bi helburu betetzen ari dira, batetik ondo pasatzea eta bestetik pixkanaka antzerkiko teknikak ikasten joatea: "bost urte daramatzat eurekin, eta gauza ezberdinak egin ditugu: mimo egiten hasi ginen, gero clown-a landu genuen, ondoren testu asko duen antzezlan, urte eta erdiz, Matrona uni Viro (Gizon bakarraren emaztea, Deban eta Lasarte-Orian eman zutena). laz inprobisazioak landu genituen, gaia eman, minutu batean prestatu eta jendearen aurrean egin. Nahiz eta nik beraie ez esan, oso lagun talde jatorra da. Oso gustura etortzen naiz. Ez da berehalakoan ikusten baina egindako lana azken finean nabaritzen da. Inportantea da gustura egitea, biltzen garenean ondo pasatzea... Lana ere egiten dugu eta saiatzen gara beste zerbait transmititzen".

Mailu Arruti taldeko partaide berriaren ustez, "obra honek, gainera, motibazio oso handia eduki du. Barrenetik, sentimendu aldetik, pila bat motibatu nau, ez da edozein obra eta horregatik tira egin dugu denok hainbeste". Berezia da lana eta azken finean guztiek dute gerra garaian egoera latz horiek bizi izan dituzten senitarteko edo lagunaren bat.

Joserra Fachado zuzendariaren eskua nabari da lanean. Eszenak toki ezberdinetan gertatzen dira eta berak azaldu digunez, hain zuzen ere horregatik ez du eszenografia handirik, "oso zaila da eszena batean guztia irudikatzea. Horregatik espazioa hutsa da eta aktoreen interpretazio eta daramatzaten objektuekin betetzen dugu".

## Lan sakona

Zuzendariaren iritziz, garrantzitsua, inor mindu gabe, zerbait ona, duina eta zintzoa adieraztea da. "Beldur hori daukat, lortuko ote dugun, ez dezala inork esan, baina zer egin dute hauek! Erronka handiena

hori da, ea egindakoa modu egokian iristen den, bere neurrian. Sentsazionalismorik gabe, denak negarrez jarri gabe,... Umorea ere sartu dugu. Zerbait duina egin nahi dugu, pentsaraziko duena, egindako astakerietatik ikasi dezagun eta berriro errepikatu ez daitezen".

Xabier Lasarekin elkarlana goraiatzeko dute taldekideek. "Azalpen asko eman zizkigun eta handik hasi ginen zerbait konkretatzen. Ensaioetara ere etorri da Xabier, bere iritzia ematera, eta etorri den guztietan hunkitu da".

Landaberriko kideentzat ere batzuetan gogorra izan da: "hasieran, gogorrago egiten zitzaigun. Orain hainbestetan errepikatu ondoren, jada, barre ere egiten dugu baina hasieran, paperean sartuz gero, gutunak oso gogorak egiten zitzaizkigun,..." Zenbait hilabetetan prestatzen aritu eta gero, argi dute ez direla hunkituko, baina aitoritzen dute interesgarria izan dela zuzenean hura bizi ez arren "nola ukitu gaituen, nola iritsi zaigun eta hori transmititzea izango litzateke polita". Hainbat urtetan ezkutu izan dena eta askok gorde dutena azaltzen hasi da. Badira "hori niri ere egin didate esaten hasi direnak eta hori barruraino heltzen da".

*Lanik zailena egokitzea izan da: liburuan gauza interesgarri asko dira irakurtzeko, baina kosta bada ere, polita da hortik zerbait sortu eta transmititzea*